

5. oinezko ibilbidea
Aizkoate


5. AIZKOATE

ALTUERA MIN.: 137 m.
ALTUERA MAX.: 829 m.
DESNIBELA: ▼ 709 m. ▲ 807 m.
DISTANTZIA: 13 km.
DENBORA: 4 ordu 30 min.
ZAILTASUNA: ertaina



5. AIZKOATE

➤➤ SAN MARTINGO PLAZA ~ AIZKOATE GAINA ~ AIZKORRANDI GAINA ~ ARASTORTZKO GAINA ~ SAN MARTINGO PLAZA



- | | | | | | |
|----------------|--------------|---------|-------------------|----------------|--------------|
| Aparkalekua | Hesia | Iturria | Bidezidorra/Lepoa | Leizea/Koba | Argi zutabea |
| Hasiera puntua | Bidegurutzea | Zubia | Eskailera | Baserria/borda | Amaiera |



► TOPOGIDA

P. Aparkalekua. San Martingo plazan, eliza eta udaletxea dauden gunean utziko dugu autoa.

1. Hasiera-puntua. San Martingo plazan bertan emango diogu hasiera ibilbideari, errepidean gora eginez. Berehala igaroko dugu Santiagoren irudia, eskuineko etxebizitzaren aurrealdean, errepide ondotik aurrera jarraitzeko.

2. Paskualiturri. Errepidearen ezker aldean gelditzen den iturri galantea ura har dezakegu berriro metro gutxiz errepidea jarraitzeko.

3. Errepidea ez. Ezkerrean etxe artetik gora egiten duen bidea agertzean errepidea utzi eta hau jarraituko dugu.

4. Aldabeko zeharra. Gurutzeaga baserritik datorren bide hau hartuko dugu segidan, eskuinerantz jarraituz. Aurrerago erreka txiki batek igarotzen du bidexka, eta eskuinetik jarraituko dugu bidea.

5. Errepidea. Aldabeko zeharra amaitzean errepidera aterako gara eskuin aldera jaitsiz.

6. Arrateta. Arrateta etxea eskuinean utziz ezkerrean errepidean gora egingo dugu.

7. Harrobia. Harrobitik igaroko gara errepidea jarraituz, XIV. menderarte gaztelu bat izandako Jentilbaratza gaina ezkerrean eta Agerre baserria eskuinean ditugula.

8. Dostolozubieta. Ezkerrean dagoen zubia igaroko dugu errepidea alde batera utziz, eta ezkerreko bidezidorra jarraituko dugu harrian eginiko eskailera modukoak igoz.

9. Etxabeltza. Eskuinean Etxabeltza dugula, ezkerrean eta gora ekingo dugu borda baten parean, haritz lerroaren itzalean bidea eginez.

10. Zeberionesaletxe. Eskuinera eta aurrera jarraituz, alboan Zeberionesaletxe baserriaren hondarrak igaroz bide zabalenetik jarraituko dugu ibilbidea. Pinudia ekialderantz zeharkatzen du bideak, eta aurrerago hesi bat pasa beharko dugu aurrera jarraituz.

11. Eskuinera. Eskuinera egiten duen bidea jarraituko dugu, ezkerretara pinudian barneratzen dena alboratuz.

12. Langa. Bidegurutzean ezkerrean hartuz burdinazko langa igaro eta gora jarraituko dugu pistari.

13. Aizkorondo. Aizkorondo inguratuz pista berean gora jarraituko dugu. Gora bidean egurrezko pasoa duen hesi edo langa igaroko dugu.

14. Ezkerrean. Ezkerrean eginez pista utzi eta belardian bidea jarraituko dugu zeharka, igo gabe.

15. Beheko langa. Daudenetan beheko langa igaro eta bide hori jarraituko dugu, hesiren bat ere pasa beharko delarik.

16. Aizkoateko lepoa. Goierriko ikusmira ederra dugu lepo honetan. Ibilbideak ekialderantz egiten du mailoaren kontra bidezidorra jarraituz. Eskalatoki ezagunean barneratzear gaude.

17. Pasa. Aizkorondo baserriaren parean egonda mailoan gora egiteko pasoa dago ezkerrean eginez. Behin gainera igota ezkerrean egingo dugu Aizkoateko gainera heltzeko.

18. Aizkoate (774m). Intzartzuko haitzetan mendealdekoenean garelako, San Martin auzoaren gain-gainea, Lazkao eta Beasain ditugu osorik ikusgai. Ibilbidea jarraitzeko berriro bidea desegin beharko dugu aurreko puntura arte eta hemendik aurrera gainez gain jarraitu.

GUNE INTERESGARRIAK



SANTIAGOREN IRUDIA

Ataungo Santiago bidea Gipuzkoako barneko Santiago bidearen adar bat da. Ataungo Santiago bide honen ibilbidea hauxe zen: Ordizia, Lazkao, Ataun San Martin, San Gregorio, Ergoiena, Atxurrene, Berrenoako galtzada, Urdiain, Urbasa, Bakedano, LIZARRA. Haxe da elizarekin batera, gelditzen den Santiago bidearen aztarna bakanetako bat. Gune honetan erromesentzako Hospitala kokatzen zen garai baten; baina egun egurrezko irudi hau baino ez da gelditzen. 1993ko Xacobeoa zela eta, Artelekuk irudia aztertu zuen, orduan babesturik dagoelarik.



19. Aizkorrandi edo Intzartzu (811m.). Mendi gain honek du inguruko paretarik handienetakoa, eta kontuz ibili behar da gainak dituen harkaitzeko zuloekin. Pagadiaren gainaldetik gainez gain jarraitzen du ibilbideak. Ez da bide zehatzik, eta ahalik eta gutxien jaisten saiatuko gara. Pagadia amaitzeaz dela Atakabiko koba gelditzen da beheraxeago.

20. Atakabiko koba. Izenak dioen moduan, "atakabi", ataka bi edo bi sarrera dituen koba da hau, eta hau da bertatik irteten den aire korrontearen arrazoia. Basoa atzean utzita, Arastorzo gainera aterako gara.

21. Arastorzo gaina. Intzartzuko haitzetatik garaienean eta zelaituenean gaude. Behean Aralegiko baserriak eta atzean berriz Ausa-Gaztelu, Txindoki eta Aralarko larreak dira ikusgai. Aurrera egiteko, zelaian zeharka jaitsi eta pagadian sartu beharko gara ezkerreara eginez bidezidorra bilatzeko.

22. Baso-pista. Bidezidorra utzi eta ezkerreara pista zabalagoa hartuko dugu.

23. Intzartzuko bordak. Bidegurutzean eskuinera eginez Intzartzuko borden hondarrak inguratu eta behera doan bidea hartuko dugu. Eskuinera egin ordez aurrera jarraituz gero, ezkerreara pinudian gora igota Troskaetako koba topatzen da, ez da ordea gure ibilbidearen helburua.

24. Kobaegi. Esquinean Kobaegi baserria dugula, Pista nagusira aterako gara ezkerreara eginez.

25. Errekarteko iturria. Lazkao Txikiren bertsoak irakurriz ala abestuz ur freskoa edanda bidea jarraituko dugu.

26. Lasarteko lepoa. XIX. Mendeko hilarria topatzen deneko puntu honetan, ezkerreara behera egiten duen pista hartu eta metro gutxira eskuinerantz barneratzen denari ekingo diogu. Intzartzuko bordetan sabaia erorita hil ziren bi anaien omenez dago hemen hilarria.

27. Ezkerreara. Ezkerreko bidean behera egingo dugu arrastoei jarraituz.

28. Bidezidorra. Esquinean barneratzen den bidezidorra hartuko dugu Barandiaranberri baserrira heldu aurretik.

29. Eskuinera. Bide hau utziz eskuinera goraka egiten duen bidezidorra jarraituko dugu Mendiolako argi-zutabera heltzeko.

30. Argi-zutabea. Hilerriaren gainean gaude, atarira jaitsi behar delarik.

31. Eskailerak. Hemendik jaitsiz gurutzeen bidea jarraituz herri-gunera helduko gara.

=2. Paskualiturri. Ibilbidea amaitzeko errepidea eskuinera jarraituz hasierako bidea desegingo dugu.

=1. Amaiera-puntua. San Martingo plazan emango diogu berriro amaiera ibilbideari, Toursko San Martinen eliza eta bertako errenazimenduko erretaula eta organo barrokoa ikusteko aprobeitza dezakegarrik aukera.

GUNE INTERESGARRIAK



AIZKORRANDI ~ 811M

(811m.) Gailur hau, pareta ikusgarrikoa da, putre-toki ezaguna. Ataunen lehen aldiz eskalatutako horma da berau, 1957an igo zutelarik Pako Lusarretak, J. L. Vitoriak eta J. Bidaurretak. Gaur egun mugatuta dago pareta honetan eskalatzea, garaien arabera debekatzen baita, bertako hegazti espezieei dagozkien babes-neurriak direla eta.